

MINTZOLA

Ahoa Bete Hots jardunaldiak
2014ko uztailaren 2, 3 eta 4an

Bertsolaritzaren “transmisioaren” eragina gazteen hizkuntza erabileran

Lapurdiko gazteen bizipenak oinarri

Miren Artetxe Sarasola

Hasi aitzin...

Bertsolaritzaren transmisioa eta euskararen erabilera uztartu nahi nituzke hitzaldi honetan. Ipar Euskal Herrian (IEHn, hemendik aitzina) kokatutako ikerketa baten hasierako urratsak ematen ari naiz, eta oraingoz ditudan datuak gehienbat Lapurdikoak direnez, bertan kokatuko dut mintzaldiaren muina. IEH eta zehazkiago Lapurdi bezalako erdalgunen batean bertsolaritzaren transmisioak gazteen hizkuntza portaeran izan lezakeen eraginaz zenbait gogoeta plazaratuko ditut ondoko minutuetan, jakinik, oraingoz, intuiziotik abiatu eta datuetan mamitutako zenbait zertzelada baizik ez direla. Isiltzen denak ez omen du okerrik esaten; ni ordea, buruan dudana kontatzen ahaleginduko naiz.

Bertsolaritza eta euskara IEHn

Bertsolaritzaren transmisioak, eta bereziki bertso-eskoletako jardunak gora egin du Lapurdin eta IEHn, azken hamabost-hogei urteotan. 1980an *Bertsularien Lagunak* elkarteak sortu zenetik, eta bereziki, 90. hamarkadan bertso-eskolak sortzen eta hedatzen hasi zirenetik, etengabe egin du gora bertso-eskoletako ikasle kopuruak. Gaur egun 29 bertso-eskola daude IEHn, eta 196 haur eta gazte biltzen dira astero bertso-eskoletan¹. Kopuruak bere horretan handia ez dirudien arren, Seaskako matrikulazio kopuruak kontuan izanik, esan genezake IEHn murgiltze ereduaren ikasten duten haur eta gazteen % 7,6 dela bertso-eskola bateko kide. Gauzak horrela, eta sare elebiduneko ikasleak albora utzi gabe, pentsa liteke bertso-eskolak izan litezkeela IEHko haur eta gazte euskaradunen hizkuntza portaeretan eragiteko gune.

Euskarari dagokionez, Lapurdin eta oro har IEHn hizkuntza ezagutzak zein erabilerak ez du bertsolaritzarena bezainbesteko gorakadarik izan. Azken hamabost urteotan etengabe egin du behera ezagutza tasak, eta gaur egun biztanleen %21,4 elebiduna bada ere (eta beste % 9,1 elebidun hartzaile),

1 Gazteei dagokienez, Baionako Bernat Etxepare lizeoko gazteen bertso-eskola da IEHn 15-18 urte bitarteko gazteek soilik osatzen duten bertso-eskola bakarra. Hitzaldi honetan aipatuko ditudan kontuak gazte horiei buruzkoak dira.

% 69,5k ez du euskara ulertzen. Esan beharra dago, ordea, belaunaldi gazteenengan gorakada bat sumatu dela lehen aldiz, azken inkesta soziolinguistikoan: 16-24 urte bitarteko gazteen %17,6 da elebiduna gaur egun (25-34 urte bitarteko gazteen % 13,9). Badirudi gazteen artean elebidunen proportzioak gora egin duela, batez ere, eskola bidezko hizkuntza transmisioaren eraginez (izan ere, etxeko transmisioan ez da gorakada nabarmenik ageri).

Baikortasun horri ñabardura bat jartzera behartuta gaude, ordea: elebidunen artean gero eta gehiago dira frantsesez hobeki egiten dutenak euskaraz baino eta belaunaldi berri bakoitzeko gehiago direla frantsesez euskaraz baino hobeki moldatzen diren elebidunak (gaur egun %11,9k hobeki egiten du euskaraz, %38,5k euskaraz eta frantsesez berdin, eta %49,6k hobeki frantsesez).

Jakinik gazte euskaldunen artean %14k soilik egiten duela gehienbat euskaraz (% 65k gehienbat frantsesez egiten baitu), pentsatzekoa da euskararen paisaia gris samarra dela, euskararen gotorleku diren familia euskaldun eta eskola euskaldunetatik kanpo.

Euskararen transmisioaz

Hizkuntza komunitate minorizatu batekoak izatearen ajea da, beharbada, etengabe transmisioaz hitz egitea. Euskararen egoera larria ikusirik, kezka iturri dugu hizkuntzaren transmisioa, funtsean, bera baita desagerpenaren aurkako sendagai, etenaren aurkako antidoto. Belaunez belauneko hizkuntzaren jarraiduran gerta litekeen hausturaren mamua izan dugu maiz gidari, hizkuntzaren biziberritzea hizpide izan dugunetan (Jone Miren Hernándezek *hauskortasunaren paradigma* deitzen dio, euskal soziolinguistikaren tradizioan nagusi izan den ikuspegi honi) eta etena saihesteko ahalegin horretan, berez hartu izan du transmisioak garrantzia.

Euskararen berreskurapen prozesuari dagokionez, ez da harritzekoa hasierako estrategia gisa eskola bidezko euskalduntzea lehenetsi izana: etxeko transmisioan hutsune nabarmenak ageri ziren, eta hiztun belaunaldi berriak bermatuko zituen ezagutza-transmisio gune ezin hobea zen eskola. Orduko soziolinguisten ideiei jarraiki (Fishman eta Sánchez Carrión, batez ere), honakoa zen estrategia horri jarraiki aurreikus zitekeena: haurrengan behar adina motibazio sorraraziz gero, ikasiko zuten hizkuntza, eta behin hizkuntzaz jabetuta, erabili egingo zuten. Horrek ahalbidetuko zukeen hurrengo belaunaldiei hizkuntza berriz ere modu “naturalean” transmititzea, eta hizkuntza ordezkapen prozesua euskararen alde iraultzea.

Badira hamarkada batzuk estrategia hau martxan dela, eta egindako lanak emaitza bikainak eman ditu hizkuntza gaitasunaren transmisioari dagokionez. Ez hainbeste, ordea, erabilerari begiratzen badiogu.

Bertsolaritzaren transmisioaz

Bertsolaritzari dagokionez ere, begi-bistakoa da eta maiz aipatu izan da bertsolaritzaren inguruko komunitateak izan duen transmisiorako sena. Modernitatetik postmodernitaterako jauzi honetan, zabaldua dago bertsolaritzari euskal gizartean lekua topatzeari buruzko kezka. Ikusi besterik ez dago gaur egun Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak transmisio adarrari egozten dion estrategikotasuna, besteak beste, bertso-eskolak sustatzen, elikatzen eta saretzen ahaleginduz.

Ez da oraingoa bertsolaritzaren transmisioari buruzko “bertsolaria jaio ala egin egiten da?” galderaren kontua. Badirudi erabat ebatzi dugula galdera, esperientziaren argitan: bertsolaria egin egiten da, hots, bertsoan egiteko beharrezko gaitasunak ez dira berezkoak, eta transmititu egin daitezke.

Ados. Baina, zertaz ari gara bertsolaritzaren transmisioaz ari garenean?

Ze transmisio motaz ari gara?

Paula Kasaresek bere tesian azpimarratzen duen moduan, transmisio kontzeptuak baditu bere baitan zenbait konnotazio, mugatzaileak izan litezkeenak bai hizkuntzaren eta baita bertsolaritzaren transmisioaz hausnartzeko garaian.

Hasteko, transmisioa, maizenik, modu bertikalean ulertzen dugu. Are gehiago, modu bertikalean eta noranzko bakarrean. Goitik behera transmititzen dugu: aurreko belaunaldiak ondorengo belaunaldiari, irakasleak ikasleari... Alta, hizkuntzaren kasuan *hizkuntzaren sozializazio paradigmak* erakusten duen gisan, haurrek ere transmititzen diete euskara gurasoei. Eta zenbat bertso-eskolako haurrek eraman dute bertsolaritza ordura arte bertsozale ez ziren etxeetara?

Hari horri tiraka jarraituz, esan beharra dago transmisioa ez dela soilik modu bertikalean gertatzen (izan goitik behera, zein behetik gora). Horizontalki ere ematen dela ohartzea berebizikoa zaigu transmisio prozesuak modu integralago batean ulertzeko: bertso-eskolako partaideen artean ere transmititzen da bertsolaritza eta bertsozaletasuna.

Kideen arteko transmisioa

Euskararen kasuan, azken ikerketek argi erakusten dute hizkuntza erabileran, eta bereziki gaztetxo eta gazteengan, kideen arteko harremanek duten garrantzia. Euskararen erabileran, gaitasuna ez ezik, eragin handia du eskolaz kanpoko eremuak, eta bereziki, aisialdiarenak:

“Ikasleen arteko eskolako hizkuntza erabilerek (...) lotura nabarmena dute ikasleek eskolatik kanpo familian zein bestelako gizarte alorretan bizi duten errealitate linguistikoarekin, eta aldatu egiten dira errealitate horien arabera. Orokorrean, datuetatik ondoriozta genezake, LMH4ko ikasleen artean eskolak lortzen duela eremu gisa gizartearekiko nolabaiteko autonomia bat. Aldiz, DBH2n kanpoko errealitatearekiko loturak askoz estuagoak dira, eta ondorioz ikasleen arteko euskarazko erabilera baxuagoa da.” (ARRUE txostena, Soziolinguistika Klusterra)

Euskararen kasuan gertatzen den bezala, esango nuke bertsolaritzaren transmisioaz ari garenean, kideen arteko transmisioa ere kontuan hartzekoa dela, eta hobeto ulertaraziko ligukeela gazteen bertso zaletze prozesua.

Aisialdiaren garrantzia

Hizkuntzaren erabilera dugu xede. Badakigu gazteen hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta, badagoela erabilerarako jauzi horretan tarte bat, batzuk gainditzen dutena, eta askok gaindituko ez dutena (bereziki ezagutzaz gaindiko baldintzak egokienak ez direnean, esaterako, IEHn).

Gazte euskaradunek, gehienbat, gune formaletan erabiltzen dute euskara; bereziki eskolan. Helburua, ordea, behartuta ez daudenean ere euskaraz egingo duten hiztunak sortzea da. Paula Kasaresek, Jean Claude Corbeil-en hitzak erabiliz, horrela formulatzen du hizkuntzaren erabilerari dagokion helburua: *“Haurrek [gazteek] beren adinkideekin komunikazio egoera ez instituzionalizatuetan euskaraz aritzea”*. Helburu honi, gainera, estrategia posible bat gaineratzen dio: harreman instituzionalizatuetan euskaraz egiten duten gazteek harreman ez instituzionalizatuetan ere euskaraz egin dezaten, harreman erdi-instituzionalizatuetan euskaraz egitea izan liteke bide bat. Alegia, eskolan euskaraz egitetik zuzenean kalean frantsesez egitera iragan ordez, tartean euskarazko aisialdi ekintzak jartzeak, baliteke kalean euskaraz egiteko baldintzak hobetzea.

Zentzu horretan, Lapurdi bezalako eremu batean bertso-eskolek duten funtzioa berebizikoa izan liteke. Jakinik aisialdi eskaintza ia erabat elebakarra dela, eta kaleko egoera soziolinguistikoa aski etsigarria,

bertso-eskola bezalako guneak estrategikoak izan litezke gazteen hizkuntza erabileran eragiteko tresna gisa.

Bertso-eskola, euskararen *berezko* erabilgune

Gogoeta hauek bidelagun, bertsolaritzaren transmisioak gazteen hizkuntza erabileran izan dezakeen eragina aztertzeko asmoz, ikerketa bat abiatu berri dut. Hemendik aurrera esango ditudan azken sei hilabetetan egindako elkarrizketetan eta behaketan oinarritzen dira², batik bat. Honako galderak izan ditut gidari, bai elkarrizketak burutzeko garaian, eta baita behaketa uneetan ere: eragiten ote du bertsolaritzaren sozializazioak gazteen hizkuntza erabileran? Eta hala bada... nola?

Bertsolaritzak gazteen hizkuntza erabileran duen eraginean pentsatzen jarrita, berehala otuko zaigu honako ideia: bertsolaritza lantzeak hizkuntza lantzea dakar. Bertsolaritzak hizkuntza du helburu eta bide. Hala, bertsotan trebatzeak halabeharrez bertsolariak lan-tresna duen hizkuntza zorroztea eskatzen du. Egia da bertsotan aritzeak euskararen ezagutza areagotzea dakarrela, baina, ikusi dugu aurrerago ere ezagutzak ez duela nahitaez erabilera inplikatzeko. Hizkuntza gaitasuna areagotzetik harago doaz, nire ustez, bertso-jardunak dituen zenbait eragin.

Lehenik eta behin, bertso-eskola, euskararen *berezko* erabilgune izateak badakar berehalako eragin bat bertsotan ezin denez euskara ez den beste hizkuntza batean egin (ideia hori dugu, behintzat, gure psikologia kolektiboan iltzatua), bertso-eskolan ezinezkoa da euskara ez den beste hizkuntza batean hitz egitea. *Berez* dator euskara ahora, eta berez zentsuratzen du norberak frantsesetik hitz egiteko joera. Harreman ez instituzionalizatueta oro har dituzten hizkuntza ohiturak, beraz, aldatu egin daitezke bertso-eskolaren baitan, arau berriak sortuz.

M.A.S. : Arauak aldatzen dira, nonbait, bertso-eskolan. Bai. Bai. Nik orain, aspaldi ez dudala egiten esaldi oso bat frantsesetik e... lagunekin ere ez, fin, salbu ez bada eremu bat nun frantsesa hitz egin behar dudana bortxaz. bai, ta bertso... ez, ez dut uste bertso eskolan, e... Ez. M.A.S. : Bitxia egingen zuen, ez? Bai biziki. Biziki-biziki-biziki - Neska [L], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko bertso-eskolako kidea (Baiona).

Bertsolaritza hiztun ibilbidean makulu

Elkarrizketetan agerian gelditu da, bestalde, bertso-eskolako gazteen hizkuntza ibilbideak ez direla ez homogeenak, ezta monolitikoak ere: aldeak daude batzuen eta besteen hiztun ibilbideen artean, eta aldeak daude, denboran zehar bakoitzak izan dituen hizkuntz portaeretan ere.

M.A.S. : Uste duzu dela bertso-eskolan ari zirelako mintzatzen zirela euskaraz edo euskaraz gehio mintzatzen zirelako... [galdera eteten du] Biak, nere ustez. Alde batetik... Bat: alde batetik, nik uste dut bertsoa... euskaraz... euskaraz gehien ari girenok xekatu dugula, agian inkontzienteki edo, eremu bat nun euskaraz mintzatzen ahal ginen, eta euskara... eta euskaraz mintzatze horrek eragin digula, fin, bertsotan aritze horrek eragin digula euskaraz gehio mintzatzea. - Neska [L], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko bertso-eskolako kidea (Baiona).

Nolabaiteko orokortasunak azpimarratze aldera, esango nuke, badaudela hiztun ibilbideetan bi une erabakigarri: lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzarako jauzia, batetik, eta bigarren hezkuntzatik Bernat Etxepare lizeorako jauzia, bestetik. Lehen mailan orokorragoa da lagun artean euskaraz hitz egiteko joera. Aldiz, behin kolegiara pasatzean, badirudi frantsesak indarra hartzen duela gaztetxoengan (ez, ordea, denengan neurri berean):

2 Lapurdiko 15-20 urte bitarteko sei bertsolari gazte elkarrizketatu ditut, eta hainbat saio, topaketa zein sariketatan aritu naiz behaketa lanetan.

Frantsesa zeren frantsesez mintzo ziren ikastolan, hori zen modan edo... Ta gero egiten zinuen zu ere hasten zinen frantsesez mintzatzen edo... - Neska [L], 17 urte. Bernat Etxepare Lizeoko bertso-eskolako kidea (Baiona).

Bigarren hezkuntzatik lizeora pasatzean, aldiz, badirudi alderantzizko joera gertatzen dela. Alde batetik, handiagoa da bertan norbere borondatez euskaraz ikasten segi nahi duen ikasle dentsitatea, eta bestalde, bestelako eremu soziolinguistikoetako gazteekin elkartzen dira ikasle lapurtarrak (batik bat euskaraz hitz egiteko ohitura handiagoa izan ohi duten barnealdeko ikasleekin).

Dirudenez, hiztun ibilbidean ematen diren euskararen aldeko bihurtuneetan edo euskara mantentze uneetan, makulu bat da bertso-eskola eta bertso-eskolako giroa:

(...) bertso-eskola on bat baldin baduzu, fin, ez dakit nola esplikatu ez dakit zer den bertso-eskola on bat, mais, giro on bat baldin baduzu bertso-eskolan bortxaz hori ateratzen da kanpora eta islatzen duzu besteengan eta... Ez ta nik uste dut ez dela aski zuk zure buruari erratea 'euskaraz mintzatuko naiz', fin, nik uste dut, nik adibidez, badakit ez dudala aski indar errateko nere buruari 'bo, are, hemendik aitzina euskaraz mintzatuko naiz', fin, ez, fin, behar dut senditu nere lagunak hor ditudala, ta, 'guk ere hala inen dugu' edo... 'hor gira' edo... fin, ta orduan bai, fin, taldean, ez, fin, nik, badakit nik bakarrik ez dakit ukanen nukeen indarrik egiteko, fin, ez dakit bertso-eskolan ez banintz ze izanen zen. - Neska [L], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko bertso-eskolako kidea (Baiona).

Bertsolaritza eta zentzu kritikoa

Eta bertso-eskolako giroa diogunean, ez gara abstraktua den zerbaitez ari. Bertso-eskolako kideen arteko konfiantza eta giro lagunkoia berebiziko helduleku dira hizkuntza portaera definitzeko garaian. Gazteek bereziki azpimarratzen duten elementua bertso-eskolako giro horretan ematen den gogoetarako eta eztabaidarako joera da:

Ez, ba gero, ba hori, lagunak, giroa, eta... Baita ere erreflexio puntu bat, osea... bertso-eskolan beti... bertso-eskolak ekartzen dizu erreflexio bat. Igual beste gauzak ez dizutenak ekarriko. Ez dakit. Hai... hainbeste jartzen zaren beste pertsonen tokietan, ba azkenean, bueno, neri behintzat, pentsarazten... ni behintzat pentsarazten nau. - Neska [U], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko bertso-eskolako kidea (Baiona).

Gogoeta-giro hori, zentzu kritikoa lantzearen kontzientzia hori, bertso-eskolako talde identitatearen elementu garrantzitsua da bertso-eskolako kideentzat.

Bertso-eskolakoetan eta sentimentuekin eta... gai... igual, nagusiagoak, eta gaiak jartzerakoan Odeik eta Aimarrek... dira... eguneroko gizartea eta biziari buruz, quoi. Adibidez futbolekoekin hitz egiten dugu futbolaz, kirolaz, ta betiko gauzez. Ta... hori. Bertso-eskolan gehio landuagoa da edo, serioagoa da. - Mutila [K], 15 urte. Bernat Etxepare lizeoko bertso-eskolako kidea (Baiona).

Eztabaida bat edukitzea bertsoetan dabilen batekin, eta eztabada... eztabaida bat edukitzea ez dabilen batekin, ez da berdina. - Neska [U], 17 urte. Bernat Etxepare lizeoko bertso-eskolako kidea (Baiona).

Hala, bertso-eskola haien identitatearen garagune ere bada, eta bertso-eskolako gainerako kideekiko sentitzen duten lotura horrek eragiten die haien eguneroko jokabidean, hala nola, hizkuntza portaeretan. Izan ere, hizkuntza identitatea ez dago bestelako identitateekiko isolaturik: gure identitatearen poliedroaren alde guztiak elkarrekintzan eraikitzen dira. Hala, bertso-eskolako kide gisa ditugun identitate markek, izan zentzu kritikoa izateak zein euskaraz hitz egiteak, elkar elikatuko dute identitatearen eraikuntza prozesuan.

Eta orain zer?

Aurrerago esan bezala, hemen kontatuak sei hilabeteko ikerketa-aldian egindako gogoeten zertzelada batzuk baizik ez dira. Helburua, ordea, txatal hauek guztiek zein oihal mota osatzen duten jakitea da, oihalik osatzen badute. Baditut hipotesi zenbait, aurrera begirako lana gidatuko dutenak:

1. Bertso-eskolako kide izateak hizkuntza portaeran eragiten du, hizkuntza mudarako edo hizkuntza ohituren mantenurako plataforma gisa.
2. Hizkuntza identitatea bestelako identitate motei loturik dago, eta bertso-eskolaren jardunean, horiekiko elkarrekintzan eraikitzen da.
3. Kideen arteko giza harremanak eta afektibitatea dira, funtsean, hizkuntza ohituren aldaketa edo mantenurako gako.

Hirugarren hipotesi hau da gutxien landu dudana orain arte, baina, baliteke (espero dut), etorkizunean, honi buruz gehixeago aipatu ahal izatea.